

## Goiegiko 76 etxebizitzek badute jabea

Behin behineko onuradunak Ekonomia, Ogasun eta Ondasun arlora hurbildu behar dira

**O**stiralean, 76 herritarrek zorrea izan zuten eta Goiegi-Ibarreko Babes Ofizialeko Etxebizitza baten behin behineko onuradunak dira.

Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian egin ziren zozketetan jakin ziren kupo desberdinetako zortedunak zeintzuk ziren.

### Zozketa

Lehenengo zozketan, herritarrez gain, Udal ordezkari eta zinegotziak ikusi ahal izan genituen aretoan; mahaian, alkatea, Ekonomia, Ogasun eta Ondasun teknikaria, Udaleko informatikaria eta kontu-hartzailea eta Gipuzkoako Eusko Jaurlaritzako etxebizitza delegatua.

Jesus Zaballosek Babes Ofizialeko etxebizitzaren balioa eta orain arte Udalak emandako pausuak azaldu zituen.

Bestalde, Nasiparekin negoziaketetan daudela ere aipatu zuen, "Goiegi-Ibarreko beste 75 etxebizitzak ere Lasarte-Oriako herritarren artean zozketatzeko".

Ostean, Ekonomia, Ogasun eta Ondasun teknikaria zozketa sistema azaldu eta zozketa egin zen. Ordenagailuak zenbakia aleatoriki era-

baki, notarioak bolatxo ateratu eta koefizientea sartu ostean, zerrenda ateratu zen.

### Zerrenda

Lehenengo saioan, Udaleko kontu-hartzaileak zerrenda irakurri zuenean, aretoko inork ez zuen poz algararik egin.

Zozketa egin eta minutu batzuetara, kafetegian jarri ziren zerrendak eta horiek begiratzeko ari ziren herritarretan ikusi ahal izan ziren erantzunak. Izan ere, zerrenda ikustean, eta ez aretoan, jakin zuten etxebizitza baten onuradunak zirela.

Zerrenda horiek guztiak Udalean eta udaleko web orrialdean daude ikusgai. Hau da, behin behineko onuradunen eta itxaron zerrendan dauden zerrendak batera ageri dira.

Zozketa honetako itxaron zerrendak indarrean egongo dira hurrengo zozketara arte.

### Udalera hurbildu

Zozketa saioan azalduenez, Udala bi aldiz saiatuko da onuradunekin harremanetan jartzeko. Hala ere, onuradunak gaurtik aurrera Ekonomia, Ogasun eta Ondasun arlora hurbildu behar dira eman behar dituzten pausuak ezagutzeko. •



Lehenengo saioan, Udaleko notarioak zenbakia erakutsi zuenean, ez zen ikusleen artean algararik entzun.



Zozketa desberdinen ostean, jendeak onuradunen izenak eta itxaron zerrenda ikusteko aukera zuen kafetegian.



Akordeoi jaialdiaren VII. edizio paregabeak jende ugari bildu zuen larunbatean /4

### KIROLA /2

Lasarte-Oria Bai! XV. krosa eta X. Kross Txikia urriaren 31n egingo dira



I. Baita Rock Jaialdiaren lehenengo edizioa arrakastatsua izan da /5

**Gosariak**  
**Hamaiketakoak**  
**Plater konbinatuak**  
**Ogitartekoak**  
**Urtebetetzeak**

...

**ERREKATXO**  
**JATETXEA**

**KARTA**  
eta  
**EGUNEKO MENUA**



**NAGUSI BERRIAK**  
Ordutegi berria  
Giro berria

**WIFI GUNEA**

Oria Etorbidea Ibaiondo Poligonoa 4 • Tel.: 943 365557  
Lasarte-Oria

# Lasarte-Oria Bai! krosa hilaren bukaeran

AFEDEGIk antolatu duen I. Kirolprobak txapelketako lasterketako bat da herrikoa

Hasi da lasterketen denboraldia eta Behobia-Donostia lasterketa prestatzeko garaia da. Lehengo astean, Josetxo Imaz oroimenezkoa jokatu zen eta honetan, Zumaia XIV. Zakila Bira. Gure herrian ere, hilaren amaieran, urriaren 31an, Lasarte-Oria Bai! XV. krosa antolatuko da, baita X. Kross txikia ere. Beraz, joan zaitezte prestatzen.

Urria iritsi da eta honekin batera, Zubietako aldeko bidea korrikalariz bete da. Izan ere, azaroaren 14an, Behobia-Donostia da eta sasoiak egon behar da lasterketak dituen 20 kilometroak egiteko.

Korrikalarien indarrak neurtzeko, gainera, hainbat lasterketa antolatzen dira Gipuzkoako hainbat herrietan. Eta horietako bat, gure herrian antolatzen da, Lasarte-Oria Bai! krosa.

## Lasarte-Oria Bai! krosa

Ohikoa den legez, Ostadar Kirol Fundazioak antolatzen duen XV. krosa, urriaren azken igandean egingo da, urriaren 31ean.

Behobia-Donostia lasterketa baino hamabost egun lehenago denez, korrikalariak haien prestakuntza fintzeko erabili ditzakete herriko lasterketak dituen 10 kilometroak.

Baina helduez gain, etxeko txikiak ere gure herriko kaleetan barrena ibiliko dira lasterka, X. Kross txikia. Baina hauek adinaren arabera ibilbidea izango dute prestatua.

## Sariak

Maila desberdinetako irabazleentzat trofeoak egongo dira. Eta afariak, kirol materiala, Erreala Anoetan ikusteko sarrerak... hainbat sari zozketatuko dira lasterketako parte hartzaileen artean.

Haurrek ere, euren saria izango dute behin helmuga iritsitakoan.

## Izena ematea

Antolatzaileek jakin arazi digutenez, urriaren 18an irekiko da helduen lasterketako izena ematea.

Aurreko urteetan bezala, Ostadarreko web gunean, [www.ostadrfk.org](http://www.ostadrfk.org) egin ahalko da, baita Geltoki kaleko 25.



Hilabete honetan, urriaren 31ean, Lasarte-Oria Bai! krossak eta kros txikiak gure herriko kaleak beteko dituzte.

zenbakian elkarrekin duen bulegoan ere.

Helduen lasterketan, txipa erabiliko da korrikalarien emaitzak jasotzeko eta horregatik, 5 eurotako fidantza eskatuko zaio korrikalari bakoitzari izena ematean.

## I. Kirol-probak txapelketa

Fidantza jarriko dute, AFEDEGIk aurten antolatu duen I. Kirolprobak txapelketaren par-

taide ez badira. Izan ere, partehartzaile horiek txip berezia erabili behar baitute eta txapelketako web orrialdean egin behar dute izena ematea.

Gure herriko probaz gain, beste bederatzita lasterketa izango dira kontuan txapelketa honetan.

Josetxo Imaz oroimenezkoa eta Zumaia XIV. Zakila Bira dagoeneko jokatu dira, beste probak, Hiru Hondartzetako

XXI Amstel Krossa, Donostiako 15km., Euskal Herriko Maratoi erdi Donibane Lohitzun-Hondarribi, Behobia-Donostia, Azkoitiko VI. Herri Lasterketa, Donostiako Nazioarteko Maratoia eta XXVI. San Silvestre Donostiara Alejandro Auzmendi proba dira.

Txapelketa honi buruz gehiago jakiteko, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) orrialdean duzue informazio guztia. •



Arg.: J. Zatarain

## Bazpi txirrindularitza eskolak hasi du 2010-2011 denboraldia

Bazpi txirrindularitza eskola lanean hasi da 2010-2011 denboraldia prestatzeko eta mailaren arabera saioak izango dituzte.

Infantil mailan, Lasarte-Oria eta Usurbilgoek batera egingo dituzte entrenamenduak, baita kadeteek ere.

Horregatik, antolatzaileek bolondres baten bila dabiltza azteazkenetan 18:00etatik 19:00etara Usurbilera txirrindulari gazteak eraman eta ekarri egiteko.

Bestalde, jubenilak egunero entrenatuko dira, errepide edo gimnasioan.

## Hasiberriak

Eskolako txikiak, hau da, alebin eta benjaminak, larunbatetan dute hitzordua Atsoabarreko Pirata barkuko ondoan eta bizikleta erabiltzen ikasiko dute.

Eskolako arduradunek txirrindularitza tratu nahi diren haurrei gonbita egiten die larunbateko saiora hurbildu eta probatzera. •

## Basaundi-Leitza txirringa irteera urriaren 16an, larunbata

Urtero legez, Basaundi-Leitza-Basaundi txirringa irteera herrikoa antolatu da urriaren 16an.

Irteera 8:00etan izango da Basaundiko plazatik eta ostean, Lasarte-Oria eta Leitza artean dauden kilometroak egingo dituzte.

Leitzara iritsi eta hamaiketako egingo dute indarrak berreskuratzeko. Izan ere, herrira bueltatu beharko dira txirriinduz.

## Bazkaria Leitza

Txirrin irteeraren hamaikagarren edizio honetan berrikuntza bat dago, bazkaria Leitza izango da.

Antolatzaileek azaldu digutenez, "ez da bazkaria Buruntz Azpi elkartearen egin-goto, Leitza taberna ireki dute bi lagun eta bertan bazkalduko dugu. Horregatik, autobusa antolatuko da Leitzara



40 bat lagun bildu ziren iaz Basaundi-Leitza-Basaundi txirringa irteeran.

bazkaltzera joan nahi dutenentzat."

Autobusaren irteera 13:45ean izango da Hipodromo zubitik.

Bazkarira joan nahi dutelehen, ticketa erosi behar

dute. Prezioa 35 eurotako da eta autobusa eta bazkaria daude barne.

Irteerari buruzko informazio gehiago edo ticketa eskuratu nahiez gero, 666 111 907 telefono zenbakira deitzea besterik ez dute interesatuek. •

# Herriko kutsadura akustikoa Foru Aldundiko agendan sartu da

PSE-EE pozik dago eta orain zuzenketaren bila doa

Gipuzkoako PSE-EE "kontent" azaldu da Gipuzkoako diputazioak Lasarte-Oriatik igarotzen den N-1eko tarteaneko kutsadura akustikoa bere agenda politikoan zuzenketarako sartu duela ikusita.

Jose Morcillo, garraiobide azpiegituren komisioko bozeramaileak, Gipuzkoako Batzar Nagusian "atsenginez" hartu du "aho batez" onartu den zuzenketa transakzionala.

Gipuzkoako Batzar Nagusia Diputazioari Gipuzkoako soinuaren mapa estrategikoa osatzen jarraitu dezan agindu dio "eta bertan ireki diren karretera berriak kontuan hartu behar dira, azpiegitura sare handietan sartuak baitaude".

Honen arira, Lasarte-Oriako auzoak diren Zabaleta, Loidi kalea, Oztaran, Arranbide, Ori eta Antxisu bailaratik igarotzen den N-1 bideunea kontsideratua izan dadin eskatu du.

## Aurrekariak

1996. urtetik dabil Lasarte-Oriako Udala, bizilagunen eta ondorioak jasaten dituzten beste talde batzuekin egoera salatzen

Egun dauden eragozpenak "kutsadura akustikoaren ondorioz larriak dira" azaldu

zuen Morcillok. Lasarte-Oriako udalak Gipuzkoako Foru Aldundian ospatutako bilertara lagundu ditu bizilagunak, hau baita konpetentzia eta arazoa konpondu dezakeen legezko administrazio bakarra.

"Orain arte hartu diren erabakiak beranduegi eta partzialak izan badira ere, bigarren gerrikoa zabaldu denetik egoerak txarrera egin du" gaineratu zuen Morcillok.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2009ko irailaren 2an, Lasarte-Oria zeharkatzen duen N-1 errepidean zarataren kontrako pantailak jartzea erabaki zuen Zumaburu eta Sasoaeta auzoetan. 625 metroko enkantera ezarri zuten eta PSE-EEtik orain, autobide osoan berdina egitea eskatu zion Foru Aldundiari.

## Erresoluzioa proposamena

Morcillok azaldu duenez, uztailaren batzarkide sozialistak erresoluzio proposamena aurkeztu zuen Lasarte-Oriako bizilagunen keak entzun eta gero. "N-1en inguruan bizi direnak kontaminazio akustiko larria jasaten dute, ondorio fisiologiko eta psikologiko argiekin" gaineratu du.

Jada 14 urte dira auzo hauetako bizilagunak kalteentzako neurriak eskatzen ari direla, "beraz, zuzenketa



N-1 Lasarte-Oriatik igarotzen den bidegune guztian (eskuinaldean) pantaila akustikoen ezarpena Foru Aldundiko agendan sartu da.

transakzional honen onarpenari esker Gipuzkoako Diputazioaren agendan berriro ere prioritatez landuko da" azaldu du Morcillok.

Eskatutako zuzenketa sozialistek, EAJ, Alkarbide eta Aralarren bitartez transakzionatu da, eta alderdi popularrak ere alde bozkatu du.

## Diputazioaren esku

Diputazioa da arazo honi irtenbidea eman diezaikeen administrazioa "baina momentuz hartutako neurriak partzialak izan dira, eta garaia da arazoa konpontzeko".



N-1 Lasarte-Oriatik igarotzen den tramoak pantaila akustikoa duten zatia.



**Gema Zabaleta sailburua Lasarte-Orian.** Ostegunean, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte gaietako kontseilaria, Gema Zabaleta egon zen PSEeren herriko etxean. Jesus Zaballos alkatea eta partiduko ordezkariak gain, herritar ugari bildu zuen kontseilariak eskaini zuen hitzaldia entzuteko asmoarekin. Honetan, Enplegu eta Gizarte gaietaz mintzo zen, hala nola, Estatuak egingo duen lan politika aktiboen transferentia eta Lanbideren egitekoak. •

## IKASTAROA

### Arrisku handiko manipulazailen karneta

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, berriro ere, ikastaro bat emango du, ostalaritzako sektoreari zuzendua. Izan ere, arrisku handiko janari-manipulazailen karneta ateratzeko ikastaroa izango da.

Ikastaroa saioetan eskainiko da. Hauek urriaren 19an eta 20an izango dira, Osasun Zentro berriko hirugarren solairuko erabilera anitzeko aretoan. Saioen ordutegia 16:00etatik 19:00etara izango da.

Informazio gehiago jasotzeko edo izen emateko, interesatuek 943 533 303 telefono zenbakira deitu behar dute. •

## BIRZIKLAPENA

### Kartoi biltzeko zerbitzurik ez bihar

San Marko Mankomunitatearenak ez diren ardurapeko arrazoiak direla medio, Mankomunitateak jakin arazi nahi du, beira biltzeko zerbitzurik ez dela egingo ostalaritzan eta kartoi biltzeko zerbitzurik ere ez dela izango komertzioetan egun hauetan eta herri edo auzo zehatza batzuetan.

Lasarte-Oriari dagokionez, urriaren 5ean, hau da, bihar ez dute komertzioek kartoi biltzeko zerbitzurik izango. •

# Akordeoi musikaz gozatz

Lasarte-Oriako Akordeoi Jaialdiaren VII. edizioa ospatu zen larunbatean kulturetxean

Zazpi urte dira Zero Sette Akordeoi Orkestrak, Udalaren laguntzarekin Akordeoi Jaialdia antolatzen duela. Urriaren hasieran kontzertu paregabeaz disfrutatzeko aukera proposatu zuten, eta aurtengo zitan ere ez dute hutsik egin. Jende ugari bildu zen Manuel Lekuona kultur etxean ordu eta erdi iraun zuen kontzertua paregabeaz disfrutatzeko.

**A**rratsaldeko 19:30ean puntuan herriko kultur etxean akordeoiaren hotsak izan ziren protagonistak. Aretoa isilik geratu zen Paris-Moscou bikotea, Accordion in Modern eta Zero Sette taldeen kontzertuaz disfrutatzen.

Akordeoi Jaialdiaren VII. edizioari Accordion in Modern kataluniar taldeak eman zion hasiera. Kontzertu zoragarria eskaini zuten Lasarte-Orian, jazz eta musika modernoak uztartzen duen emanaldia eskaini zuten, bateria eta baxuaren laguntzarekin. Ondoren, Paris-Moscou bikotearen txanda izan zen, bi unibertso bidai batean murgilduz. Azken txanda, herriko Zero Sette orkestrarentzat izan zen. Aurten gainera, Iñigo Peñak idatzitako Dharma obraren estreinaldiarekin.

## Accordion in Modern

Kataluniar taldearen eskutik akordeoiaren alderdi ezezagunak ezagutzeko aukera izan genuen. Bateriak eta kontrabaxuaren erabilpenak bitxikeri puntua gehitu zion kontzertuari. Musika erakaragarria, indartsua entzun ahal izan genuen Suite Moderna, Jig (Suite Irlandesa), Libertango eta Russiche Fontasie jo zuten piezetan. Estilo klasikoa, jazz-a, folklore errusiar eta irlandera eta musika modernoaren nahasketaz disfrutatu ahal izan genuen.

Aktuazio ederra Sabadellgo boskoteak eskaini zuena. Publikoa txaloka jardun zen.

## Duo Paris Moscou

Ondoren Duo Paris Moscouren txanda izan zen. Bertan pertsonalitateen arteko alkimia, konplizitatea eta pasio bateratu baten osagarritasuna akordeoian erakutsi zigten Domi eta Roman bikoteak.

Bidai musikal batean murgildu ginen beraiekin, garai eta estilo ezberdinen nahasketarekin, Paris eta Mosku.

Bi unibertsoan, bi kulturatan, jolasteko bi moduetan... barneratzeko aukera izan genuen. Musikaren bi diseinu erakutsi zizkiguten; bata

barietate frantsesera bideratuta eta bestea errusiar musika tradizional klasikora. Bidai ikaragarria bizitzeko aukera izan zen kultur etxean bikote honi esker.

Romanek gainera, piezetan publikoaren interakzioa, parte hartzea eskatu zuen. Modu honetan, ikusle goak eta kontzertuak bat egin zuten.

## Herrikoen txanda

Jaialdiari amaiera emateko, Zero Sette orkestraren txanda izan zen. Kontzertu ederra, ohituak gaituzte horietakoa eskaini zuten Akordeoi Jaialdiaren VII. edizio honetan.

Aurten gainera, Iñigo Peña herritarrek idatzitako obra bat eskaini ziguten, *Dharma*. Abesti honen bitartez, pertsona guztiak gure barrualdean dugun bizipoza islatu zigten pieza eder honekin.

*Dharma* obran Sero Zette Orkestraz gain, Easo abesbatzako hiru neska gazteek ere parte hartu zuten. Obra indartsua, erritmikoa eta txalo zaparrada handiarekin agurtua.

## Arrakasta

Akordeoi Jaialdia gure herrian finkatuta dago erabat. Urtero-urtero arrakasta biltzen du eta horren isla, kultur etxeko aretoa ia bete ageri zitzaigula larunbatean.

Jaialdi honi esker lasarteoriarrek akordeoiak eskaintzen dituen barietate ezberdinak ezagutzeko aukera bikaina izan dute, akordeoia- ren mundura hurbiltzeko.

Txaloak nagusitu ziren jaialdiaren amaieran. Jaialdia amaitzeko, ohiko sarien banaketa izan zen, Iñigo Peñari, Easo Abesbatzako zuzendariari eta talde bakoitzari bana.

## Hurrengo edizioaren zain

Aurtengo edizioa berriro ere arrakastatsua izan da. Egun batez herria akordeoi musikaz bete da. Baina berriro jaialdiaz disfrutatzeko, urte bete itxaron beharko da, bitartean, larunbatean ikusitakoa gogoratu eta disfrutatu. Larunbatean ikusitako kontzertuak ez baitira erraz ahazten diren horietakoak. •



Ikuskizun ederra izan zen Dharma obrarena. Iñigo Peñak eta Sero Zettek lan bikaina egin dute moldaketan



Kontzertu ederra eskaini zuten eta behin eta berri berriz publikoaren laguntza eskatu zuten. Romiren umorea ezagutu genuen.



Ikuskizun paregabea eta ezberdina eskaini zuen Accordion in Modern boskote kataluniarrek.

# Musika eta jai giroa nagusi izan ziren

I. Baita Rock Jaialdiari esker, nahi izan zuten guztiak musikaz astetzeko aukera izan zuten

Esna Hadi Kultur elkarteak larunbatean I. Baita Rock Jaialdia antolatu zuen. Lagun talde batek sortutako elkarte indarrez hasi da. Helburu nagusia hasieratik Lasarte-Oriako kalei bizitza ematea, eta larunbateko giroa ikusita aski argi lortu dutela esan daiteke. Eguerdian hasi zen kalejira poteoarekin, babarrun janarekin jarraitu eta arratsaldeko 20:00etatik aurrera Andatza Plazan musika izan zen nagusi antolatu zituzten Rock kontzertuei esker.

Ixaso MORENO

Jai giroa nagusitu zen larunbatean Lasarte-Orian. Eguraldia ere lagun izan zuten, izan ere beroa eta eguzkia nagusitu baitziren egun osoan zehar. Eguerditik aurrera herriko kaleak musikaz bete ziren. Jende ugari bildu zen I. Baita Rock Jaialdian antolatutako ekintzetan parte hartzeko.

Eguna luzea izan zen jaialdian antolatutako ekintza guztietan parte hartu zutenentzat. Eguerdian gorputzak berotzeko, poteoa, eta gainera kalejiran ibili ziren herriko kaleetan zehar. Jende asko ibili zen *Erre Erre* txarangaren atzertik musikaz gozatzeko asmoz. Animatuta eta aurretik zetorren egunaz disfrutatzen gogoei ikusi genituen bertan bildutakoak. Etxeko txikiak ere txarangak jotako punk eta rock bertsoak dantzatzeko ikusi genituen. Herriko kaleak ondo animaturik egon ziren.

## Tripa betetzeko ordua

Poteoak luze jo zuen, hirurak arte ez baitziren babarrunak jaten hasi. Bazkari ederra, tripa ondo bete behar egunari aurre egiten jarraitu ahal izateko. Nahiko babarrun eta sakramentu jateko aukera izan zuten Andatza plazara hurbildu zirenak.

Ondo bazkaldu eta gero, atsedean pixka bat, ondoren

gorputza ondo astintzeko garaia.

## Musika eta musika

Arratsaldeko 20:00etan hasi eta berandu arte luzatu ziren kontzertuak Andatza Plazan.

Satura, El Trono de Judas, Aurka, U.K Bill eta Apurtu taldeak hurbildutako guztiak dantzan jarri zituzten. Aurreikusitak zeuden R eta Despervicio taldeek ezin izan zuten jaialdian parte hartu "Despervicio batera joleak istripua izan duelako eta R taldeko kide bat gaixotu egin delako" azaldu ziguten antolatzailerek.

Giro ederra jartzea lortu zuten Esna Hadi Kultur elkarteek. Esperientzia polit honen bidez musika kalera atera da. Elkarteak kide izan nahi duenak ateak irekiak ditu, harremanetan jartzeko mezua bidali helbide honetara [esnahadielkartea@hotmail.com](mailto:esnahadielkartea@hotmail.com) edo Sasoa Udaberri tabernan galdetu. Idei eta proposamen berrien zain daude.

## Bizirik irauteko asmoa

Gero eta gutxiago dira herrian egiten diren kontzertuak, eta egon baldin badaude leku itxietan izan ohi dira. Herria biziberritzeko eta musika kalera ateratzeko helburuekin antolatu du Esna Hadi Kultur elkarteak lehendabiziko aldiz Rock jaialdi hau. •



Kontzertuak bi ordu berandu hasi baziren ere, jende ugari bildu zen Andatza. Irudian El trono de Judas taldearen emanaldia.



Babarrun jana goxoa prestatu zuten Andatza plazan bildu ziren 50 pertsonentzako, sakramentu eta guzti.



Arratsaldean, eguzkipean jendea bildu zen taldeen entseguak entzuzera.



Jende ugari bildu zen txaranga entzuteko herrian zehar egindako hainbat geralekuetan. Dantzan aritu ziren ikusleak.



## Ipuin kontalarien orduak bihar irekiko ditu atea Pello Añorgarekin

Urtero legez, Udalak Ipuin kontalarien ordua antolatu du urria, azaro eta abenduko arratsaldeetan Manuel Lekuona Kultur Etxeko haur liburutegian.

Egitasmoa haur eta gazteen artean literatura suspertzeko programaren barruan kokatzen da eta iaz bezala bi ipuin kontalariaren partehartze izango du, Pello Añorga eta Koruko Zurutuza.

### Saioak eta adin tartekak

Pello Añorgak 4 eta 5 urte bitarteko haurrek izango dituzten Ipuinaren orduan bihar, urriaren 25ean eta azaroaren 9an.

Sei urtetik zortzi urte bitartekoentzat, Ipuinaren ordua Koruko Zurutzaren eskuetan egongo da eta urriak 20, azaroak 17 eta abenduak 1ean izango dira saioak.

Ipuin kontaketa guztiak 18:00etan hasiko dira.

### Baldintzak

Lasarte-Oriako Udalak jakin arazi duenez, baldintza gutxi batzuk bete behar dira ipuin kontalariaren saioetan, hala nola, saioetara puntual iristea, programan azaltzen diren urteak errespetatzea, behin ipuina hasi eta gero gelatik ez ateratzea eta haurren bakarririk egotea.



Giro ederrean jaso zituzten Buruntz-Azpiko bazkideek beraien sariak. Arg.:Txema Valles

## Sariak Buruntz-Azpiko bazkideei

Urtero legez, Buruntz-Azpiko ehiza eta arrantza elkarteak ehiza eta arrantza sariak banatu zituen.

Hirurogehi lagun inguru bildu ziren Buruntz-Azpiko elkarteak Basaundin duen egoitzan afaltzeko. Afalostean hasi ziren, giro ezin hobean banatu zizkieten sail ezberdinetan nabarmendu diren

kideei txapelak eta oroigarriak.

Jabi Arroyo elkarteko lehendakariak hartu zuen hitza eta bertan zeuden guztiak hurbildu izagatik eskerrak eman eta gero, sariak banatu zituen Jose Mari Ortiz eta Jesus Criado ehiza eta arrantza delegatuekin batera.

Aurten onuradunak hona-

koak izan dira: Tomas Bardon zizare arrantzan; Juanan Matxain arrantzaldi arinean; Mikel Fernandez eta Koro Fernandez itsasoko arrantzan; Xabier Castejon galeperra kaiola eran atalean, Jesus Ferreira eta Antonio Carrasco ehiza txikia txakurraekin modalitatean eta Victor Rodrigues plater tiroketan. •



Kontzertu polita ikusteko aukera izan genuen kultur etxean Latitud 43 talde donostiarraren eskutik.

## Gazte kontzertuak berriro martxan

Ikasturte hasierarekin batera, *Gazte kontzertuak* izeneko ekimena ere martxan jarri da. Ekimen hau 2008ko urrian jarri zuen martxan Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria eta Festetako Sailak eta Xpression Kultur Elkarteak sinatutako hitzarmenak.

Iazko abenduan sinatu zuten 2010eko hitzarmenean, 13 emanaldi egiteko konprometua hartu zuen udalak; ostiraleko kontzertua zortzigarrena izan zen.

Aurreko bi urtetan eskaintza musikako emanalditan oinarritu bazen ere, aurtengoan kontzertuez gain, antzerki,

bakarrizketak eta emanaldi berezi ugari eskani dira kulturareko kafetegian.

### Latitud 43

Latitud 43 taldearekin eman zioten hasiera ikasturteari ostiralean.

Pop eta rocka jorratzen duen talde honek, oso gustura utzi zituen bertara hurbildu ziren herritarrak, eta hauek txaloeekin eskertu zieten beraien lana.

Musika lasaia, sentimenduz josia... eta guzti hori bertaratutako publiko guztiari helaraztea lortu zuen laukote donostiarrak. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Egunero

### Erakusketa

GOIZANE MENDIZABALEN paisaien argazkiak izango dira ikusgai. Jalgin, egun osoan.

### Erakusketa

HEGOALDERA BEGIRA, Irati Bergararen argazki erakusketa urriaren 8tik aurrera. Irati *Aprende Euskadiko* kidea da. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



## Asteartea, 5

### Ipuin-kontalaria

IPUINAREN ORDUA Pello Añorgaren eskutik 4 eta 5 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera. Manuel Lekuona Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etatik aurrera. **EUSKARAZ.**

## Igande, 10

### Omenaldia

ZAHARREN OMENALDIKO JAIALDIA. Manuel Lekuona kulturetxean, 12:30ean.



## Galeraz eta doluaz nola hitz egin haurrekin

HITZ EGIN DEZAGUN GALERAZ ETA DOLUAZ HAURREKIN ERE hitzaldia eskainiko du Josune Martiarena psikologo klinikoak 7 urtera arteko haurren guraso eta hezitzaileei zuzenduriko hitzaldien zikloen barruan Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta.

OSTEGUNEAN, HILAREN 7AN  
KULTURETXEAN 18:00ETAN  
GAZTELANIAZ

### Zinea

EL PEQUEÑO NICOLAS haurrentzako filma eskainiko dute. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, **GAZTELANIAZ.**

## Osteguna, 14

### Zinea

EN TIERRA HOSTIL filma Okendo Zinema Taldearen eskutik.

Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:00etan, **GAZTELANIAZ**

## Ostirala, 15

### Kontzertua

MANTISA taldearen emanaldia. Talde honek Hard core melodikoa lantzen du. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan, **EUSKARAZ.**

## Igande, 17

### Zinea

SHREK, FELICES PARA SIEMPRE haurrentzako filma eskainiko dute. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, **GAZTELANIAZ.**

## Asteartea, 19

### Hitzaldia

PROSALUS GKEaren hitzaldia. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

## Asteazkena, 20

### Ipuin-kontalaria

IPUINAREN ORDUA Koruko Zurutuzaren eskutik 6, 7 eta 8 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera. Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etatik aurrera, **EUSKARAZ**

### Hitzaldia

FIBROMIALGIAREN Gipuzkoako Elkartearen hitzaldia. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan

## Ostirala, 22

### Kontzertua

WHA WHA BUGA BAND taldeak kontzertua eskainiko du Xpression kultur elkarteak eta udaleko Gazteria Sailak sinatu zuten *Gazte Kontzertuak* hitzarmenaren baitan. Talde honek blues, funk eta fusio jorratzen ditu. Manuel Lekuona Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

## Larunbata, 23

### Antzerkia

TXIRULARI MAJIKOA haurrentzako antzerkia eskainiko du Teatro Paraiso antzerki taldeak. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, **EUSKARAZ**

## Igande, 24

### Zinea

MARMADUKE haurrentzako filma eskainiko dute. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan. **GAZTELANIAZ**

## Astelehena, 25

### Ipuin-kontalaria

IPUINAREN ORDUA Pello Añorgaren eskutik 4 eta 5 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera. Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etatik aurrera, **EUSKARAZ**

## Asteazkena, 27

### Kontzertua

LIEPAITES neskez osaturiko haur abesbatzaren emanaldia. Sarrera doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan

## Osteguna, 28

### Zinea

PRECIOUS filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:00etan. **GAZTELANIAZ.**

**Liburutegiko ordutegia**  
Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara  
Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181

**Esazu irratiko programazioa**  
**Urriaren 15etik aurrera ostiralero programa!**  
FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era

## Oharrak

### Gizarte Zerbitzuetako diru-laguntzen eskaerak

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako, Enplegu eta Kooperazioko Departamentuak gizarte-ongi-zatearen alorrean lanean diharduten erakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die gaur irekiko dela urriaren 24ra arte sail honek eman ohi dituen diru-laguntzen eskaerak aurkezteko epea.

Horetarako eskariak Udaltxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, 9:00etatik 13:30era bitartean, eskututako agiriekin batera, hau da, memoria, gastuen justifikazioa eta jardueren proposamena.

### Udako Txokotako argazkien CDA

Udara honetan, uztaila eta abuztuan, Ttakun Kultur Elkar-

teak antolatutako txokotan egondako haurren argazkiak jasotzen dituzten CDak eskuragarri egongo dira urriaren 4tik aurrera Amarrun ludotekan (Ola kalea 1), asteleheneetik ostegunera 17:00etatik 20:00etara.

### Oztabide elkarteko Gabonetako loteria

Oztabide auzo-elkartek Arranbide-Oztaraneko auzotarrei jakin arazten die eguberriko loteria salgai dagoela. 19108 zenbakia da eta 3 eurotako (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteria partaidetzak dira hartu daitezkeenak. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta Coviran supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzte.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administratza gastuei aurre egiteko baliabide hau bakarrik daukala elkarteak.

### Galdutako gauzak Udaltzaingoa

Udaltzaingoa bulegoan gauza hauek daude jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilikarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko pultsera eta kamisetak beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzaingoa Bulegora

hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### Marrakzi eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteko marrakzi eta margo eskola martxan da dagoeneko, lehenengo eskola eguna urriaren 6a izango da. Eskolak asteazkenetan eta ostegunetan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era izango dira.

Izena emateko interesa dutenek, Manuel Lekuona kulturetxeko 2. Solairura jo behar dute goian aipatutako ordutegian.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Jon Jimenez Macuso Altuning Pro Gipuzkoa ekimeneko sariduna

# “Pragan ikasleek aukera ugari dituzte”

■ Pragan urte betez egon da Erasmus bekarekin eta ezagututakoa jaso du bere proiektuan  
 ■ Enpresa administrazio eta zuzendaritza ikasketak bukatuko ditu ikasturte honetan EHUn

Erasmus programari esker, Euska Herriko ikasleek Europako beste lurralde bat; bere historia, kultura, gizartea... ezagutzeko aukera bikaina izaten dute. Jon Jimenez Macuso lasarteoriarrak esperientzia hori probatzeko aukera izan du Pragan. Gainera, bueltan Altuning Pro ekimenean parte hartu eta 3.000 euroko saria jaso du. Ekimen honen bidez, Ignacio Manuel Altuna fundazioak, Azkoitiko Udalak, Kutxak eta Foru Aldundiak, atzerriko unibertsitateetan ikasten aritu diren hamar gazteren proiektu eta ideiak bultzatu dituzte, ikasleek atzerrian ikasitakoa Gipuzkoara ekartzeko. 70 proiektu aurkeztu dira eta Jon Jimenez lasarteoriarrarena izan da 10 sarituetako bat.



## TXINTXARRI

**T**xekiar Errepublikako Unibertsitate, erakunde eta enpresen arteko lankidetzaren sareen azterketa, herrialde horretako herritarren partaidetza, hezkuntza, gazteen emantzipazioa, garraioa, baloreak, sentsibilizazioa, herritarren inplikazioa eta bortizkeria dira besteak beste Jon Jimenez Macusok Altuning lehiaketan aurkeztutako lanean jorratu dituen alderdiak. Gu berarekin bildu gara honi guztiari eta bizitako esperientziari buruz hitz egiteko.

### Zer ari zara ikasten eta non?

Enpresa administrazio eta zuzendaritza bukatzeko bi ikasgai geratzen zaizkit oraindik, Ekonomia I eta II. Irailan lizentziatura eskuratzeko aukera nuen, baina udan Moldavian eta Errumanian ibili naizenez, ikasturte honetan ateratzea erabaki dut.

Diplomatura Mondragon Unibertsitateak Irunen duen ikastetxean egin nuen. Eta ondoren, lizentziatura egiteko EHUr a pasa nintzen, bertan ikasiaz Erasmusera joatea errazago zelako, plaza gehiago zeudelako.

### Zer moduz ibili zara Pragan?

Urte osoa egon naiz han, irailetik maiatza amaiera arte, eta esperientzia hain ona izan denez berriro bueltatuko nintzateke.

Oso hiri polita eta merkea da. Gainera, Europa erdian dagoenez, bidatzeko aukera handia dago, konexio oso onak dituzte. Pragan ikasi dut baina, Alemaniara, Austriara, edota Poloniara joan naiz.

### Asko bidaiatu duzu, eta ikasi?

Guztirako denbora egon da. Han burutu ditudan ikasgaie-

tan oso nota onak atera ditut, oso gustura ibili naizelako. Eta ikasgaieez gain, kultura, ohitura... oso ezberdinak ezagutzeko aukera eduki dut. Gelan suediar batekin nengoen adibidez. Esperientzia aberasgarria izan da erabat.

### Zer moduzko hiria da Praga?

Hiri oso turistikoa da, jende pila ikusten duzu kalean. Amarekin joan nintzen urtarrilean eta minus 20 gradutan geunden arren, jende pila zebilen kalean. Aste Santuan edota abuztuan, pasada bat da dabilen jendetza.

### Eta nolakoa da halako hiri handi batetik herrira buelta?

Oso herri ezberdinak dira. Niretzako Praga ikaragarria izan da. Gainera, hemen Lasarte-Orian gurasoekin bizi naiz eta han ikasleen erresidentzian, aldaketa handia da. Baina, hemen nagoenetik, batez ere, hango bizitzeko era da faltan botatzen dudana. Ia egunero ateratzen ginen zer-bait hartzea, garagardea oso merkea zen eta. Han askatasun handia nuen, eta hemen erantzukizun gehiago dut.

### Txekia eta Eslovakia 90 hamarkadan banandu ziren...

Eslovakiarrak eta txekiarrak ondo konpontzen dira elkarrekin. Nik erresidentzian bieta-koak eduki ditut.

### Atzerrian ikasi duzuenen proiektuak Gipuzkoan aplikatzeko ideiak lehiatu dira Altuning pro Gipuzkoa sariketan. Nola jakin zenuen honen berri?

Maiatzean e-mail bat jaso nuen atzerriko ginenon esperientzia kontatzeko gonbitearekin. Hasiere batean ez nion kasurik egin, baina Lasarte-Oriara bueltatu nintzenean,

maiatza bukaeran, e-maila berriro irakurri eta parte hartzea erabaki nuen.

Aurkeztu beharreko lanean batez ere, gure esperientzia kontatzeko eskatzen ziguten. Egon garen tokikoa azaltzeko gero Gipuzkoan aplikatzeko. Ez nuen espero inondik inora irabazterik eta oso pozik nagan.

### Zer nolako lana burutu eta aurkeztu zenuen?

Proiektuan zazpi gauzataz hitz egin nuen, baina garrantzi gehiena *buddy system* erakundeak zuten.

Hasieratik, txekiar ikasle bat jarri ziguten bete behar ziren paper guztiak laguntzeko, eta gero bidaiek, festak edota jarduerak ezberdinak antolatzen zituzten azken finean gu Txekian integratzeko helburuarekin. Eta lortu zutela uste dut, txekiarrekin harremana geneukan.

Hizkuntz programak ere antolatzen zituzten: Nik txekiera ikasten nuen, eta era berean, gaztelera irakaste izan nintzen. Hemen hau faltan botatzen dut.

Bestela, unibertsitateak enpresa eta instituzioekin duen lankidetzeta eta garraio publiko sistema aipatu ditut lanean. Guk bono bat erosten genuen autobusean, metroan, trenean edota tranbian erabiltzeko, eta ikasle izateagatik deskontua geneukan.

Hemen deskontuak ez ditugu ikasle izateagatik, gazteak izateagatik baizik. Eta ikasleak ez dira beti gazteak, edo gazte guztiak ez dira ikasleak.

### Joan aurretik bazenuen Pragan laguna, beraz...

Pragara joan aurretik e-mailez hango ikasle batekin jarri nintzen harremanetan. Aireportura joan zen nire bila.

### Orain Datorki Gunea programan ari zara...

Eusko Ikaskuntzak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundiak... antolatutako hiru urteko proiektua da. Aurten 40 lagunek hartuko dugu parte, gazteen parte hartzea aztertu eta euren arazoei aurre egiteko irtenbideak bilatzeko helburuarekin; ikuspuntu ezberdinak dituzten 40 gazte ados jartzea ez da erraza izango, baina oso aberasgarria bai.

### Gazteen parte hartzeari buruz zein iritziz duzu zuk?

Pasotismo asko dago. Antolatzen diren gauza askotan ez dugu parte hartzen, oso erraz bizi gara eta egunerokotasunera mugatzen gara. Motibazio eta gogo falta dago. Pasiboak gara.

### Zein da zuen arazo nagusia?

Langabezia eta etxebizitzaren prezioa, batez ere.

### Konponbiderik ba al du gazteen problematikak?

Seguru nago konponbidea baduela, baina ez dakit... orain Datorki Gunean aztertuko dugu.

### Zein asmo duzu etorkizuneko? Zer egingo zenuke?

Bi ikasgai ditut ikasketak bukatzeko, ingelesa titulua ateratzeko akademian hasiko naiz, Datorki Gunean egongo naiz, ... baina ez dira ordu asko, hiru unibertsitatean eta beste hiru akademian, beraz ondo nago. Lan bila hasiko naiz.

### Beste zein zaletasun dituzu?

Kunfua egiten dut. Eta lagunekin egotea; ez zait etxean egotea batere gustatzen.

### Zinemaldian lanean egon zara, zer moduz?

Goiz, arratsalde eta gau egin dut lan. Gau batean Kursaallean atezain lanetan nintzen, eta nik ireki nien Julia Roberts eta Javier Bardem-i aretoa sartzeko atea. Julia super irribarretsu sartu zen eta Bardem-ek eskerrak eman zizkidan. Bane-kien bazetozela eta oso urduri nengoen.

### U-2en kontzertua ere ikusi zenuen lanean zinela?

Bai, ate barruan egotea tokatu zitzaidan eta. Ikusgarria izan zen. •